


## Euskadin, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 37,2 lanean dago 2021eko lehen hiruhilekoan

Okupazio-tasak adin-talde batean lanean dauden pertsonen ehunekoa neurtzen du. Euskadin bizi diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean okupazio-tasa % 37,2 izan da 2021eko lehen hiruhilekoan. Horrek esan nahi du, aurreko hiruhilekoekin konparatuta, enplegua duten gazteen ehunekoa nolabaiteko susperraldia izan duela.



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak (BJA) oinarri hartuta*

Baina atzerago joz gero, ikus dezakegu gazteen okupazio-tasak baxuagoak direla orain 2017an, 2018an eta 2019an jasotakoak baino, eta 2016ra joan behar dugula oraingoak baino okupazio-tasa baxuagoak aurkitzeko.

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen okupazio-tasaren bilakaera (hiruhileko datuak)						
(%)	2016	2017	2018	2019	2020	2021
I. hiruhilekoa	36,4	39,3	38,9	40,0	39,0	37,0
II. hiruhilekoa	37,8	41,0	41,2	39,8	35,4	
III. hiruhilekoa	38,7	39,5	41,2	41,1	34,7	
IV. hiruhilekoa	36,9	39,3	39,9	38,0	37,0	

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustatek emandako datuak (BJA) oinarri hartuta*

2021eko lehenengo hiruhileko honetan gazteen okupazio-tasa Euskadiko biztanleriaren batez bestekoa (% 66,7) baino askoz txikiagoa da, baina hori gazteen artean dauden ikasle kopuru handiaren ondorioa da, gazteen artean erdiak baino gutxiago (% 46,6) sartzen baitira aktiboen kategorian, hau da, lanean edo lan egiteko prest daudenen artean.

Bestetik, 2021eko lehenengo hiruhilekoan gazteen okupazio-tasa handixeagoa izan da emakumeen artean, gizonen artean baino (% 37,6 eta % 36,9, hurrenez hurren) eta altuagoa da Araban (% 41,9), Bizkaian (% 36,3) edo Gipuzkoan (% 36,7) baino.